

11E/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 8koa, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak emana, gastua onartzeko 2021erako Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskal Wikilarien Elkartearen arteko Lankidetza Hitzarmena egiteko.

ERREFERENTZIA: Espedientearen kodea: 0011-3592-2021-000000

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskararen Sustapenaren Atala
Tfnoa.: 848 426053
Helbidea: Paulino Caballero, 13. 31002 - Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikulua xedatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak esleitzen ahal dituela diru-laguntzak izendunak, baldin eta lortu nahi den helburua eta diru kantitatea berariazko onuradunari zehazten bazaizkio.

Nafarroako Parlamentuak, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen bidez, "Euskal Wikilarien Elkartearreko hitzarmena" izeneko B30002 B3200 4819 334106 partida izenduna onetsi zuen.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako organismoari dagozkion eginkizunen artean dago euskararen presentzia eta erabilera informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta sare sozialetan sustatzeko proposamenak egin eta Nafarroan garatzeko programak martxan jartzea.

Horiek horrela, egokitzen da Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskal Wikilarien Elkartearen artean hitzarmen bat sina dezaten, arautzeko sinatzaileek hartutako konpromisoen markoa, Euskal Wikilarien Elkartea Nafarroako Foru Komunitatearekin zerikusia duen jardura ahalbidetzerantz bideratua.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako txostena ikusirik, eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuan emandako eskudantziak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. 30.000 euroko diru gastua baimentzea, 2021ean, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren artean, lankidetza hitzarmen bat egiteko.

Gastua hori egingen da 2021eko gastuen aurrekontuko B30002 B3200 4819 334106 "Euskal Wikilarien Elkartearreko hitzarmenerako" partidaren kargura.

2. Foru Agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan Ekonomia eta Ogasun Departamentuak duen kontu-hartzailetzara, aipatutako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Kudeaketa Administratiba eta Ekonomikoaren Atalera, Euskarabideko Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzura, Euskara Sustatzeko Atalera eta Programen Bulegora.



3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA

Ana Olo Hualde



CSV: **E5F47211450EC0F9**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / <https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2021-02-09 07:15:41